

Herri programa proposamena
2019

Herri demokratikoa

ehildu

Índice

1. Parte hartzea	05
2. Polizia eredu	09
3. Gobernantza.....	13
4. Askatasun herritarrak.....	17

Parte hartzea

Diagnostikoa, kokapena

Indarrean dagoen sistemak, jarduera-esparru guztietara heltzen den etengabeko krisia bizi du. Eliteen politika ereduak sorturiko krisialdiak, bai Euskal Herrian eta baita mundu zabalean bizi garen herritarrek kaltetzen ditu, boterea eta aberastasuna gutxi batzuen esku egoten jarraituko duela segurtatzeko, gehiengoaren ongizatea xahutuz, etorkizuna hipotekatuz eta bizitza zein lan baldintzak kaskartuz.

Sistemaren politika eredu hauek erabaki ahalmenik gabeko herritar otzanak eta menpekoak bultzatzen ditu, kontrolik eta gardentasunik gabeko inposaketa ekonomiko eta politikoan oinarritutako eredu ilunak ahalbideratzeko. Honi guztiari, nazio gisa dagokigun subjektu politikoaren ukapena erantsi behar zaio. Beste batzuk erabakitzen dute gure izenean.

Boterearen egitura politikoak, dinamika instituzional eta kudeaketa burokratikoak, erabat zurrunk dira, eta herritarrei arrotzak zaizkie. Erabakiguneak herritarren egunerokotik kanpo geratzen dira, eta gauzak eurak kontuan hartu gabe egiten denaren ustea erabatekoa da.

Gardentansunaren izenean ekimenak ugaritu diren arren, benetako neurri eta aldaketarik ez da eman trantsiziotik jaso dugun egituraketa administratibo zaharkituetan. Gardentasun ezaren egituraketa administratiboak ditugu eta euren kudeaketak herritarren esku-hartze aukerarik ez dute ematen.

Parte hartzea eta gardentasuna ez dira soilik administrazioari edo botere publikoei dagozkien eskakizunak. Indar politikoek, eragile sozialek, herri edo gizarte mugimenduek ere erronka handi bat daukagu horretan, ez soilik aldarrikapen gisa, praktika gisa ere: demokrazia zuzenerako guneak, lankidetzaz sozialerako sareak eta demokrazian sakontzeko esperientziak ahalbideratuz.

Paradigma aldatzen ari da, guk ezagutu ditugun elkarteetan eta bolondres talde askotan, bai eta gizarte-ekimen asko definitzen dituen sareko lanak ikusi ahal izan dugun bezala. Esperientzia goriek ez dute beste norbaiten esku uzten, parte hartzen dute, ez dute itxaroten, jardun egiten dute; eta gizarte-harremanak aldatzen dituzte, gizarteak harremanak izateko, parte hartzeko eta herritarrek sustatzeko

modu berriak sortzen dira, eta modu berri horiek, ireki egiten dute, behetik, erregimena goitik itxi nahi duen hori.

Arabian, Bizkaian eta Gipuzkoan sozialki historia eta tradizio handia duen “auzolana” eta “komunitateak” ditugu. Sozialki oso barneratua dugu autoeraketaren bidez eta borondatez herrigintza egitea. Mugimendu eta elkarte sare handi eta biziak ditugu. Gure benetako indarra, lanerako balore hauen baitan kokatzen da eta hori da hain zuzen EH Bilduk jaso zein sakondu beharrezko parte hartze kultura.

Herri proiektua osatzean herritarrak protagonista dituen proiektua nahitaezkoa da. Alegia, herritarrek erabaki egin behar dute, beren buruaren jabe izateko tresnak behar dituzte eta erabakien subjektu izan behar dute. Horretarako, parte hartzea eta gardentasuna ezinbesteko printzipioa, filosofia eta lanabesa dira.

Helburu orokorra

Erabaki handi eta txikiei dagokionez herritarrak kalean nahiz erakundeetan ahalduntzeko garaia da. Parte hartzea eraldaketa lortzeko tresna gisa, demokratizazio-prozesu bat abiatzera goaz. Gure demokrazia eredu propioa sortzeko esperientzia pilotuak abiatuko ditugu. Praktikan jarri behar dira demokrazia zuzenerako guneak, lankidetzazko sozialerako sareak eta demokrazian sakontzeko esperientziak.

Herritarren partaidetza aktiboa, kalitatekoa, erabakigarria, benetakoa, eraikitzailea eta eraldatzailea lortu behar dugu.

Berdintasunaren ikuspegitik, egiturari dagokionez diskriminazio egoeran dauden sektoreen hitzari lehentasuna eman.

EH Bilduren parte hartze politika proposamena gaur egungo errealitatek abiatuko da. Halaber, egin-garria, bideragarria eta pragmatikoa izango da herritarrak boteretzea ardatz harturik.

ILDO OROKORRAK ETA NEURRIAK

1.- Herritarrek politika publikoetan parte har dezaten sustatzea

- Administrazioen politika publikoei eta haien eztabaida-prozesuei buruzko informazio egiazkoa eta objektiboa eskaintzea. Administrazioaren eta herritarren arteko edozein prozesu partizipatibo behar bezala egikaritzeko oinarria komunikazio-politika horretan sakontzea da.

- Herritarren Parte-hartzerako Foru Zuzendaritza sortzea, herritarrek kudeaketa publikoan eta lurralde-proiektu estrategikoetan parte har dezaten eta erabakietan eragiteko aukera izan dezaten zeharka sustatzeko helburuarekin.
- Parte-hartzerako langile teknikoen sare bat sortzea; langile horiek prestakuntza jasoko dute pertsona guztien eta, bereziki, zailtasun handiagoak dituzten talde edo kolektiboen parte-hartzea errazteko, hala nola: emakumeak, gazteak, adineko pertsonak, migratzaileak eta abar.
- Herritarren parte-hartzea bultzatzea udalean eta eskualdean, auzolaneko dinamikak indartuz eta pertsona, kolektibo eta gizarte-mugimendu herrikoi guztien errealitatera eta beharrianetara egokitutako elkarrizketa eta parte-hartzerako kanalak irekiz edo hobetuz.
- Laguntza-linea egonkorrak ezartzea, udalerrian parte-hartzerako prozesuak bultzatzeko.
- Zuzeneko demokraziako esperientziak bultzatzea, adibidez herri-kontsultak eta berrespen edo errefrenduak, politika publikoei lotutako erabaki-hartzean ahalik eta pertsona gehienek parte hartzeko helburuarekin.

2.- Herritarrei egindako kontsultak sustatzen jarraitzea, parte-hartze sozialerako esparru berri baterako funtsezko elementu gisa

- Herritarren kontsultei buruzko ponentzia bat garatzea Batzar Nagusietan.
- Herritarrentzat garrantzitsuak diren politika publikoei eta proiektuei buruz herritarrei kontsultak egiteko baldintzak maila politikoan adostea, eta pertsona eta kolektibo guztien eta bereziki jendartean baztertuen daudenen parte-hartzerako berme guztiak daudela ziurtatzea.
- EH Bilduk enfasi berezia jarriko du herri kontsulta, eta oro har, prozesuen prozedura eta moldeak herriko eta herrialdeko eragile politiko eta soziala.

3.- Aurrekontu partizipatiboen prozesuak garatzea, gure ereduari jarraikiz

- Herritarrei horiei buruzko informazioa eta prestakuntza ematea.
- Jokoaren arauak herritarrekin finkatzea.
- Diagnostiko bateratua egitea eta proposamenak lehenesteko irizpideak ezartzea, ondoren eztabai-datu ahal izateko.
- Urtero modu partizipatiboan erabakitako foru- edo udal-aurrekontua pixkanaka handitzea.

- Udalen kasuan, aurrekontu partizipatiboen prozesuak bi urtean behin egitea, urte anitzeko inbertsio egingarrietan oinarrituz.
- Foru Aldundien kasuan, aurrekontu partizipatiboen prozesuak eskualdeetan oinarrituz egingo dira, Foru Aldundien inbertsioak herritarren eguneroko jardunean gehiago ikusteko helburuarekin.

Polizia eredua

Diagnostikoa, kokapena

Arlo honetan bi bektore kontraesankor ditugu. Alde batetik, esperientzia historikoan oinarrituta, herritarrek poliziarri dioten konfiantza eza. Bestetik, hainbat hedabidek eragindako segurtasun-faltaren sentsazio interesatua.

Gainditu behar dugun lehen oztopoa hainbat polizia-kidegoren sedimentazio historikoak eragindako segurtasunaren mapa kaotikoa da. Izan ere, zerbitzu eraginkorra emateko logikak baino, alderdien interesek sortu dute. Bestalde, segurtasuna polizian hasi eta amaitzen dela interpretatzen duen irudipena aldatu behar dugu. Poliziaren zereginaren ohiko parametro horiek beste batzuekin aldatu behar ditugu, hain zuzen, segurtasun-zerbitzu garantista batekin. Hau da, ezin du erreakzio edo errepresio hutseko zerbitzu izan. Aitzitik, delituak eraginkor prebenitzeko ikuspuntu batean oinarrituta egon behar du, eta eskubideak eta askatasunak baliatzea sustatu. Ezin dugu zerbitzu horiek egun emateko moduaren kritika egitearekin konformatu. Beharrezkoa da eredu praktiko bat aurreratzea: alde batetik, segurtasunaren kontzeptu zabalagoa emateko –prebentzioaren, hezkuntzaren eta pedagogiaren, babes zibilaren, larrialdien, erreskateen, suteen eta salbamenduaren arloetan lan egiten duten eragile guztiak batuta–; bestetik, poliziaren funtzioa eguneratzeko, eman behar duten kidegoak araztuta, koordinatuta eta berrantolatuta, horien kudeaketa-programak diseinatuta, udaltzaingoan zereginak zabalduta eta Ertzaintzarenak araztuta eta berresleituta.

Helburu orokorra

Herritarren artean segurtasunari buruzko eztabaida sustatu beharra dago. Beharrezkoa da egungo ikusmoldea, herritarrak segurtasunaren helburu hartzen dituen, hausnarketa-prozesu bat abiaraztea.

Goitik beherako eredu-aldaketa honek, era berean, balio-aldaketa bat ere ekarri behar du polizia-funtziora: tankera militarizatuko ohiturak albo batera utzi behar dira, eta erantzukizunak modu partekatuan bere egiten dituen mentalitate bat behar da, gizarte-konpromisoz eta zerbitzua emateko borondatez.

Eskema kooperatibo eta koordinatu baten bidez segurtasunarekin lotutako beste funtzio batzuk betetzen dituzten kidego edo agentzia batzuekin ordeztu behar da poliziaren nagusitasuna.

ILDO OROKORRAK ETA NEURRIAK

1.- Herritarren segurtasunari eta polizia-ereduari buruzko eztabaida zabala eta irekia sustatzea

- Egungo beharrian sozialei eta poliziak beharrian horietara egokitzeko bete behar dituen funtzioei eta ezaugarriei buruzko hausnarketa- eta eztabaida-prozesuak abian jartzea hainbat mailatan, pertsona eta kolektibo guztiek modu berdinean parte hartu ahal izan dezaten, betiere gardentasun osoarekin eta pertsona guztien giza eskubideen defentsaren zerbitzura.
- Herritarren parte-hartzea bultzatzea polizia-ereduari buruzko Plan Estrategiko baten eraketan.
- Balizko abusu polizialak (indarkeria, torturak, tratu txarrak, eta abar) detektatzeko eta horien aurrean esku hartzeko mekanismoak aktibatzea.
- Polizia-lanaren aurrean gardentasun-mekanismoetan aurrerantz egitea, mekanismo juridiko eta diziplinazkoak aktibatuz balizko praxi okerren aurrean.
- Mozal Legearen udal-aplikazioa berrikustea, haren ondorioak desaktibatzeko helburuarekin.
- Euskalduntze-planak aktibatzea.

2.- Giza eskubideak defendatzen dituen polizia-eredu baterantz bideratzea

- Poliziaren jardunbide egokien mapa bat lantzea, zerbitzuaren hobekuntzarako inspirazio gisa eta jardunbide desegokiak gainditzeko edo ezabatzeko katalogo gisa.

- Polizia-kidegoen funtzioak birdefinitzea eta eguneratzea, udaltzaingoaren funtzioak zabalduz eta Ertzaintzaren funtzioak definituz.
- Udaltzaingoaren kidegoak koordinatu eta berrantolatzea, horretarako kudeaketa-programak diseinatuz.
- Udaltzaingoan sartzeko azterketak udaltzaingoari esleituko zaizkion eskumen berrietara (delitu ekonomikoak, zerga-iruzurra, ingurumenaren defentsa, eta abar) egokitzea.
- Udaltzaingoak eta foru-poliziak erreformatzea gardentasunaren eta giza eskubideen defentsaren printzipioak oinarritzat hartuz, euren lan profesionalari atxikitako elementu gisa, besteak beste:
 - Zerbitzuko polizia, ez errepresiboa, politizatutako jardun-irizpiderik gabea.
 - Polizia zibila, ez militarizatua, indarra baliatzeari uko egiteko konpromisoarekin, indarkeria guztiak gainditzeko egungo testuingurua kontuan izanik. Horretarako, jarrera, protokolo eta dispositibo teknikoak modulatu beharko dira helburu hori lortzeko.
 - Gertuko polizia, komunitatearen gertakarietan inbrikatua eta inplikaturik, herritarren aniztasun sozial, kultural, linguistiko eta politikoa errespetatuko duena.
- Etengabeko prestakuntza-prozesuak ezartzea lehendik adierazi diren eta eztabaida sozialeko prozesuetan definitu diren printzipioen ildotik. Genero-ikuspegia duen prestakuntzak nahitaezkoa eta lehentasunezkoa izan beharko du, indarkeria matxistei eta jatorria, arraza, sexu-orientazio, genero-identitate eta abarreatikoko bestelako gorroto-delituei behar bezalako arretoa eskaintzeko.
- Udaltzaingoa defentsa zibilean inplikatzeko, baita larrialdietan, prebentzioan eta erreskatean ere, kudeatzen dituen gainerako kidegoekin koordinatuz.
- Estatuaren segurtasun-indar eta segurtasun-kidegoek progresiboki atzera egin dezaten erreklamatzeko, udal-mailan ez baitute zerbitzurik eskaintzen.

Gobernantza

Diagnostikoa, kokapena

Ordezkaritza-botere publikoen jardunaren kontrolaren inguruan, herritarren erantzukizuna berreskuratu behar da. “Arlo publikoan” parte hartzeaz harro egon behar dugu eta atsegin handiz gauzatu, alderdi publikoei dagokienez ere (gure ongizatea horien mende dago), gure bizitzen eraikitzaile zuzen eta arduratsuak izatea lortzeko.

Gardentasunaren izenean ekimenak ugaritu diren arren, benetako neurri eta aldaketarik ez da eman trantsiziotik jaso dugun egituraketa administratibo tradizionala bezain zaharkituetan. Gardentasun ezaren egituraketa administratiboak ditugu eta euren kudeaketak herritarren esku-hartze aukerarik ez dute ematen.

Hala ere Euskal Herrian, sozialki historia eta tradizio handia duen “auzolana” eta “komunitateak” ditugu. Sozialki oso barneratua dugu autoeraketa, ekimen soziala eta elkarrekin egindako lanaren bidez herrigintza egitea. Mugimendu eta elkarte sare handi, errotu eta biziak ditugu. Gure benetako indarra, lanerako balore eta praktika hauen baitan kokatzen da, herri proiektubatek jaso zein sakondu beharreko eguneroko demokrazia sare horietan.

Ustelkeria erakunde-arloko tolerantziatzako giro batean geratu da, behin eta berriz zigorrik jasotzen ez den eta isiltasunaren lege hitzartuaren testuinguruan, non interes ekonomikoek eragiten duten eta kontrol publikoa eta monitorizazio soziala lortzeko mekanismoek huts egiten duten.

Gure herrialdean Espainiakako ustelkeriaren tsunamitik urrundu ez garen arren, ustelkeria demokratikoa -lege itxurakoa- dagoela aipatu behar dugu, austeritatearen doktrinapean gizarte-zerbitzuak degradatzen dituen, publikoa dena pribatu bihurtzen duen, bizitzaren kostua garestitzen duen eta hainbat urtetan borroka eginez lortutako gizarte-eskubideak merkaturatzen dituen ustelkeria, hain zuzen ere.

Helburu orokorra

Zaila da gardentasuna eta kultura partizipatiboa indartzen duten prozedura ondo ezagutzea. Zaila da, era berean, Euskal Herrian gauzatzen diren prozesuen arteko trukea gauzatzea. Ez dago jardunbide guztien sistematizaziorik zentzu horretan. Horregatik, jendarte-autonomian, herri-autokudeaketan eta erradikaltasun demokratikoan oinarritutako jardunbide guztiak bildu, partekatu eta indartzen lagunduko diguten esparruak eta tresnak behar ditugu.

Gure erakundeek jendartearen berdintasuneko, justiziako eta askatasuneko zenbait helburu/eskaera/eskubideri erantzuna emango diete. Eskaera/eskubide hauek gauzatzeko ezinbestekoa da botere publikoen eta herritarren edo jendarte zibilaren arteko benetako harreman bat sustatzen eta babesten duen erakunde-garapeneko esparru bat, jendarte zibilak gobernu- eta legegintza-jardunetan inplikazio zuzena izan dezan.

Administrazio publikoek hizkuntza zuzena eta erraza erabili behar dute, teknizismorik gabekoa, herritarrek, arazo erantsirik gabe, administrazioarekin elkar eragiteko aukera izan dezaten. Gainera, sortzen den informazioa unean-unean eta modu eskuragarrian eskaini beharko da, herritarrek informazio egokia izan dezaten, egiten diren kudeaketa eta inbertsioen inguruan.

Kargu politikoak eta Jaurlearitzari izendapen librearen bidez atxikitakoak herritarren zerbitzura dauden pertsonak direnez, gastu publikoa modu zorrotz eta gardenean kudeatzea ahalbidetzen duten neurriak hartuko dira.

ILDO OROKORRAK ETA NEURRIAK

1.- Arlo publikoaren kudeaketa-eredu kalitatezkoa, gertukoa, herritarren parte-hartzean, lankidetzan, gardentasunean eta kontu-ematean oinarritzen dena sustatzea

- Administrazio publikoen berregituraketari buruzko eztabaida-prozesuak irekitzea, administrazioak irekiagoak eta sendoagoak, herritarren zerbitzurakoak eta parte-hartze sozialean oinarritutakoak izan daitezten. Era berean, oinarritzko zerbitzuak deszentralizatzea eskualdeetan/auzoetan, zerbitzu publikoak hurbiltzeko eta horien berri emateko helburuarekin.
- Gardentasunari buruzko Foru Arauen garapena berrikustea, eta hobetzeko eta modu egokian gartzeko plan artikulatuak eta zeharkakoak definitzea.
- Agente eta eragile sozio-ekonomiko desberdinekin erakundeen eta herritarren artean informazioa trukatzeko bideak, guneak eta esparruak adostea, baita herritarrek arlo publikoari lotutako erabaki-hartzean eta plan eta programa garrantzitsuen betearazpenaren jarraipenean parte hartzeko ere.

- Herritar guztiek ulertzeko moduko informazio erraza eskaintzea (gastu eta aurrekontu publikoak, diru-laguntzak, proiektu handiak eta abar), teknizismoak alde batera utziz, beharrezkoak diren bide guztiak erabiliz baztertuen dauden kolektiboetara iristeko. Era berean, prozesu administratiboen desburokratizazioa martxan jartzea, herritarrentzat ulergarriagoak eta eskuragarriagoak izan daitezten.
- Udaletako lan-batzordeak eta erakundeak herritarrentzat irekitzea, era horretan eztabaida instituzionala eskuragarriagoa bihurtuz, eta sailen arteko taldeak sortuz herritarren beharriazko soluzio integral eta holistikoak eskaintzeko, erantzun partzialetatik urrunduz.
- Kargu publiko eta izendapen libreko kargu guztientzat jokabide-kodeak diseinatzea / martxan jartzea, honako hauek bermatzeko: soldatak egokitzea errealitate sozialarekin bat etorritik, pribilegioak ezabatzea eta euren zereginak sortutako beharriazkoekin soilik eta eskusiboki bat datozen konpentsazioak egokitzea; baita erabaki-hartze eta gastu publiko zorrotzak ere.
- Foru-zorrei buruzko auditoria sozial eta ekonomikoak egitea eragile eta agente sozialen parte-hartzearekin.
- IKTei arreta berezia jarri eta administrazioa gerturatu eta erabil errazagoa egiteko mekanismoak jarriko ditugu, zurruntasunarekin eta burokratizazioarekin amaitze aldera.

Askatasun herritarrak

Diagnostikoa, kokapena

Herrialde bat demokratiko gisa kualifikatzeko, bi aldagai bateratu behar dira gutxienez: lehenengoa, taldeko eta banakako eskubideen benetako aintzatespen-esparru bat izatea; bigarrena, aintzatespen hori gauzatzeko mekanismoetan sakontzea, haren ardatz nagusia herritarrek gai publikoetan daukaten parte-hartzea izanik.

Izan ere, adierazi dugu gatazka politikoko egoerak ondorio handiak dituela eskubide eta askatasun demokratikoez gozatzeari dagokionez. Baina horrez gain, hurbileko gizarteetan bezalaxe, balio horiek murriztuz doazela ikusten dugu, horiek baliatzeko espazioak etengabe gutxitzen direla. Interpretatu egiten dugu euskal herritarrek parametro aurrerakoi nabarmenetatik gaingitu nahi dutela defizit hori, eskubide eta askatasun demokratikoak baliatzeko eremu horiek ahalik eta gehien zabalduta eta sakonduta, guztiengana irekitzeaz gain. Amaitu gabe jarraitzen du politikez, zerbitzu publikoez eta oro har espazio publikoaz berdintasunean, errespetuz eta erabateko eskubideekin gozatzeko itxaropen horrek.

Baina, gainera, beharrezkoa da «gai publiko» horien ideia herritar guzti-guztien, gure elkartean eta gure erakundeen berezko kontu moduan berreskuratzea, haiei buruz jakiteko eztabaidatzeko eta erabakitzeke.

Beharrezkoa dugu ere herritarren erantzukizuna berreskuratzea, botere publiko ordezkarien jarduketaren benetako kontrolari dagokionez. Azken batean, nahitaezkoa da demokraziaren «plaza publikoan» parte hartzeko harrotasuna eta plazera senti dezagula, alderdi publikoetan ere gure bizitzen zuzeneko egile eta arduradun izate aldera, alderdi horien esku baitago gure ongizatea.

Jakinik pertsona orok eskubide guztiak osoki baliatzea, zalantzarik gabe, edozer gizarterentzat amaitu gabeko etengabeko helmuga bat dela. Beste gizarte batzuek bezala, nahitaezkoa dugu gobernamen duan, parte-hartzearen gardentasunean, segurtasunean, justizian, zigor-ereduan eta beste alorretan ageri diren arazoez arduratzea eta horiek ekiditea. Ulertzen dugu gureak eskatu egiten duela eta merezi duela alor horretan urrats sakon eta atzeraezinak eman daitezela.

Helburu orokorra

Giza eskubideak eta funtsezko askatasunak babesteko esparru bat sortzea ezinbestekoa da. Politika publiko guztiek nazioarteko ordenamenduetan jasotako giza eskubideak izan behar dituzte gidari. Dena dela, adierazpen hutsetik irudikapen praktiko eta eraginkorrera doan bidea igaro behar dugu, eta atzean utzi eskubide horiekin talka egiten duten inertziak, jardunbideak, neurriak eta jarrerak.

Egia da Espainiako legeria eskubideak baliatzeko espazioak murriztuz joan dela eta errepresio-sistema berri bat inposatu duela, ez-esplizitua, ez hain agerikoa eta antza denez ez hain zorrotza, baina ondorio larriekin: minimo demokratiko horien fiskalizazio arbitrarioaren laginak dira, esaterako, Herritarren Segurtasuneko Legea, segurtasun pribatuko legea, azken aldian.

Gure iritziz, badira baldintza objektiboak politika eta zerbitzu publikoen eskaintzan eta espazio publikoaren aprobetxamenduan bertan giza eskubideak eta funtsezko askatasunak babesteko esparru orokor bat finkatzeko.

ILDO OROKORRAK ETA NEURRIAK

1.- Giza eskubideak babesteko euskal esparru integral bat sustatzea

- Giza Eskubideen Behatoki baten sorkuntza exijitzea, herritarrek eta eragile eta mugimendu sozialek aktiboki parte hartuz, euren jatorria, arraza, sexu-orientazioa, genero-identitatea, ideologia, erlijioa eta abar direla-eta kalteberatasun-egoeran dauden pertsonak eta kolektiboak barne. Balia-bideak eta behar bezala prestatutako langileak eduki beharko ditu.
- Giza eskubideen kultura bat sustatzea, giza eskubideen alorrean informazio publikoa, gaitzea eta hezkuntza biltzen dituzten planen bitartez, gure errealitate sozialera egokitutako politika-esparru zeharkako eta integral batean.

2.- Justizia-eredu propio bat defendatzea

- Justizia-administrazio propioa, autoktonoa, inpartzialtasunaren oinarritzko printzipioak betetzen dituen eta segurtasun juridikoaren printzipioan oinarrituz diharduena beharrezkoa dela aldarrikatzen jarraitzea.
- Justiziarako sarbide askea eta doakoa eta tasa judizialen indargabetzea exijitzea. Bereziki, atxilotuentzako laguntza-zerbitzuak eraberritzea eta indartzea, eta presoek laguntza juridikoaren berme osoa ematea, doako lege-laguntzarako eskubidearen osagarri eta babes gisa.

- Eremu judizialean herritarren hizkuntza-eskubideak erabat errespetatu daitezkeen exijitzea.
- Eremu judizialeko langile guztiek generoaren alorrean prestakuntza jaso dezaten exijitzea.
- Herritarrenganako arretan efikazia, bizkortasuna eta kalitatea sustatzea; zehazki, izapidetzea eta egikaritzea hobetuz, langileen prestakuntza indartuz eta jendeari informazioa emateko bulegoetan, familia-epaitegietan eta erregistro zibiletan funtzionamendu-hobekuntzak ezarriz.
- Justizia trantsizional eta konpontzailearen aplikazioari lotutako ezagutza eta elkartrukea bultzatzen jarraitzea.



ehbildu